



ATAZA - GORBEIA

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Lanaren nondik norakoak:

- Zuetako bakoitzak Gorbeiaiko 6 izaki bizidun sailkatzeko gako dikotomiko bat prestatu behar du. Taldekide bakoitzak hauetako multzo bat aukeratu beharko du:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK	UGAZTUNAK
<i>Lacerta schreiberi</i> (Schreiber muskerra)	<i>Felis silvestris</i> (basakatua)
<i>Natrix natrix</i> (suge gorbataaduna)	<i>Sus scrofa</i> (basurdea)
<i>Coronella austriaca</i> (iparraldeko suge leuna)	<i>Martes martes</i> (lepahoria)
<i>Rana iberica</i> (baso-igel iberiarra)	<i>Barbastella barbastellus</i> (baso-saguzarra)
<i>Salamandra salamandra</i> (arrabioa)	<i>Cervus elaphus</i> (oreina)
<i>Ichthyosaura alpestris</i> (uhandre palmatua)	<i>Capreolus capreolus</i> (orkatza)
HEGAZTIAK	ORNOGABEAK
<i>Pernis apivorus</i> (zapelatz liztorjalea)	<i>Elona quimperiana</i> (Quimper barraskiloa)
<i>Neophron percnopterus</i> (sai zuria)	<i>Rosalia alpina</i> (alpetar adarluzea)
<i>Accipiter gentilis</i> (aztorea)	<i>Papilio machaon</i> (Makaon tximeleta)
<i>Strix aluco</i> (urubia)	<i>Coenagrion mercuriale</i> (Merkurioren burretzia)
<i>Buteo buteo</i> (zapelatza)	<i>Pyrenaearia velascoi</i> (Velasco barraskiloa)
<i>Falco tinnunculus</i> (belatz gorria)	<i>Pardosa pullata</i> (otso-armiarma)

- Amaitzean, zirriborroa taldekideei erakutsi, egokia eta ulergarria iruditzen zaien aztertuz. Azkenik, zirriborroa irakasleari erakutsi, lehen zuzenketa egin dezan.
- Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko eskema eta gorde zuen portfolio digitalean.

- Hemen dituzue zenbait pista erabil ditzakezenak:

ANFIBIOAK eta NARRASTIAK: hankarik duen ala ez, azal hezea duen (anfibioren kasua) edo ezkatatzen estalitako azal lehorra (narrastien kasua), isatsik duen ala ez eta nolakoa, gorputzaren forma eta kolorea, azal leuna edo zimurtsua, azaleko marrazkiak...

UGAZTUNAK: hegan egiten ote duten, adarrik ote duen eta nolakoak, letaginak agerian dituen, tamaina, muturraren luzera, buztanarena, belarrien forma edo luzera, apatzik duen ala ez...

HEGAZTIAK: Moko sendoa eta kurbatua duen (hegazti harraparia), begi handiak dituen (gaueko hegaztien kasua), tamaina handikoa den, lumen kolorea, isatsaren forma eta tamaina, hegaleen forma eta tamaina...

ORNOGABEAK: Hegalik duen ala ez, hanka-kopurua, elitrorik duen ala ez (kakalardoek bezalako hegaleen gogorrak dira), oskolik duen, oskolaren forma, adar luzerik dituen, antena luzerik dituen, hegaleen kolorea, hegaleen tamaina, hegaleen itxura, gorputzaren forma...